

ARGIA.EUS/LARRUN

AROSZTEGIA AUZIA

GARBIÑE ELIZEGI, ERNESTO PRAT ETA ITZIAR TORRESEKIN
GOIZ BAT LEKAROZEN

LARRUN #304

// KARTZELARA BIDALTZEN BAGAITUZTE ERE, HEMEN EGONGO DA HERRI BAT ERASOEN KONTRA DEFENDATZEKO PREST //

EGILEA | **ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**

AZALA | **IÑAKI LANDA** ARGAZKIAK | **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Ilbeltzeko igande goiz batez jo dugu Baztanera. Eguzkiak oraindik ez du Lekarozko plaza argitu; bertan elkartu gara Garbiñe Elizegi Nabarte, Itziar Torres Letona eta Ernesto Prat Urzainkirekin. Itzaletan hotz egiten du eta umorez goxatu dugu lehen agurra, hogen urtean Aroztegia proiektuaren aurka eremu anitzetatik lanean ari diren hiru kide hauekin: Elizegi eta Torres auzipetuta daude, 2021eko kanpaldian parte hartzearen ondorioz. Garai hartan Prat Lekarozko alkatea zen eta Elizegi Baztango alkate izan zen 2011tik 2015era: biek ezagutu dute zer den erakunde publikoetatik Aroztegia proiektuaren irregulartasunen aurka lan egitea, baita goragoko instantziarik tokiko erabakien gainetik jartzeko duten larderia ere. Eta Elizegi eta Torres *Aroztegia... eta gero zer?* plataformako kide izan ziren: badakite zer den

herri mugimendutik helegiteak eta bide legalak lantzen aritzea, herritarrak sentibilizatzeko informazio orriak idatzi eta zabaltzea, herri galdeketa eta mobilizazioak antolatzea, desobedientzia zibila egitea... Egun elkartasun komiteko kide dira.

Goizeko ihintzetan belaiak berde bizi daude. “Nondik ikus ditzakegu Aroztegia jauregia eta lurrak?” galdezka, kazetaria eta argazkilaria beti muturluze... Agian ez dira bakarrak. Itzalen bat somatu ote den zelatan leiho baten ertzean... “Goazen. Herri bideetan joango gara. Agian gaur ere Guardia Zibilen patrola inguratuko zaigu. Niri sarri gertatzen zait, herri bide horietan nabilenean” mintzatu zaigu Elizegi, guri eta leiho zelatariari.

Giro ederra dago eta eguzki izpitara pozik atera gara, mendi buelta egitera. Bidean, epaiketaren auzia zertan den azaldu digute:

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.906 zenbakiarekin banatua

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2025eko otsailaren 23a



Ernesto Prat Urzainki, Itziar Torres Letona eta Garbiñe Elizegi Narbarte, Lekarozko frontoi aurrean.

Ehunka urteko haritzak botatzen ari zirela ikusita, 2021ean herritar askok bere gorputza jarri zuen Lekarozko lurretan, hondeamakinen aurrean. Palacio de Arozteguía promotorak legez kanpo hasiak zituen obra horiek, aurrerago xehe azalduko dugunez. Herritarren erantzun espontaneo hura kanpaldi bihurtu zen eta handik astebetera, hondeamakinak joan egin ziren Aroztegiaren lursailetik: geroztik ez dituzte erakitze lanak berrabiarazi. Kanpaldi harengatik, zazpi herritarri delitu hauek leporatzen dizkiete Espainiako Fiskaltzak eta Palacio de Arozteguía promotorak: “Bortxa eta derrigortze delitu larriak” (obrako langileen kontra), eta “talde kriminal antolatu baten parte izatea”. Guztira,



**“POLITIKOKI DEFINIZIO
BAT IZAN DUGUNAK EDO
BAZTANEN AKTIBO EGON
GARENAK AUKERATU GAITUZTE
AUZIPETZEKO. EZ DAUKA
BESTE LOGIKARIK”
GARBIÑE ELIZEGI**

20 urteko espetxe-zigorra eta 56.000 euroko fidantza eskatzen dizkiete. Epaiketa maiatzaren 19tik 23ra bitartean egingo dela iragarri diete.

Baina bada gehiago ere: promotorak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua auzitara eraman ditu eta 43 milioiko kalte-ordaina

eskatu die. Nondik eta nola? Promotoraren arabera, proiektua gauzatu ezin izan duenez, diru galera egon delako eta bi gobernuek ez zutelako proiektua babestu kanpaldiaren aurrean. Garbiñe Elizegik hartu du hitza: “Modu batera edo bestera diru publikoa bereganatu nahi dute. Promotorak badu arazo bat: kontratua sinatua du Hilton luxuzko hotel katearekin, Baztango hotela kate horretakoa izan dadin, eta ez badute proiektua garatzen Hilton kateari indemnizazio handia eman behar diote. Nola ez duten diru hori euren poltsikotik jarri nahi, Espainiako eta Nafarroako Gobernuen eskatu dizkiete 43 milioi kalte ordaintan”. Baina zazpi herritar auzipetuak ez daude mehatxu ho-

rretatik salbu, Itziar Torresek azaldu duenez: “Erreserbako fidantza” deitzen zaion figura bat eskatu dute, gobernuek ez badute dirutza hori ordaintzen, gu zazpioi eskatzeko”.

Epaiketaren helburua, Elizegiren ustez, “herritarrak izutzea eta hau berriz gertatzea saihestea da, herritarrok gure burua defendatu ez dezagun. Auzi hau herri mugimendua eta lurraren defentsa kriminalizatzeko bide bat da eta aldi berean nazio zapalkuntzan eta hizkuntza zapalkuntzan sakontzeko modu bat”. Guardia Zibilak egin dituen txostenek kriminalizazioa bilatzen dutela salatu du Elizegik: “Guardia Zibilak hasieran egin zuen txostena hamarkadetan bizi izan dugun diskurtsoarekin egina zegoen, ‘ENAMekoak dira, Itoitzen eta AHTren aurka egon ziren berberak...’; “Ni garai hartan haur bat baino ez nintzen!” ohartarazi du auzipetuta dagoen Torres gazteak. Elizegik jarraitu du: “Txosten hori astakeria zen eta epaileak esan omen zien aldatzeko. Geroztik egin duten txostena alderatzen badugu inkisizioaren sorgin ehizako testu batekin, gauza aunitz antzekoak



**“ZIGORTZEN BADITUZTE,
ESAN NAHIKO LUKE
HORRELAKO PROIEKTUEN
OPOSIZIOA EGITEN DUTENAK
TALDE KRIMINALAK DIRELA.
ETA HEMENDIK AUERRERA ZER?”**

ERNESTO PRAT

dira: ‘Hemen badira batzuk buru direnak eta agindu egiten dute nahiz eta tokian presente ez egon, eta lortzen dute haien inguruan horrelako gauzak gertatzea eta talde kriminal bat dira’. Nola jada ez duten ETaren aitzakiarik, ba talde kriminalarena asmatu dute”. Kanpaldian modu batera edo bestera jende askok parte hartu zuen, aurrerago ikusiko dugunez. Beraz, akusazioak nola osatu du auzipetzeko zazpiko zerrenda? Elizegik argi du: “Politikoki definizio bat izan dugunak edo Baztanen aktibo egon garenak aukeratu gaituzte. Ez dauka beste logikarik”. Kanpal-

dian antolatzeko modua kolektiboa izan zela dio Torresek: “Antolaketa hierarkikoetan sinesten dute eta horregatik hartzen dituzte zazpi herritar; haiek bai, hala funtzionatzen dute baina herri mugimendua badu antolatzeko beste modu bat, inoiz onartzen ez dutena”.

Torresek gehitu du lurraren defentsa kriminalizatzea “Europar joera orokorra dela, ikusirik horrelako mobilizazioak indar handia hartzen ari direla. Adibidez, Frantziako estatuan Lurraren Altxamenduak mugimendua, edo horren aurretik ZAD... Euskal Herria oso leku interesgarria zaie talde kriminalaren aurrekaria sortzeko, gero herri mugimenduko beste edozein mobilizaziori jurisprudentzia hori aplikatzeko”. Pratek aurrekari horren larria nabarmendu du: “Zigortzen badituzte, esan nahiko luke horrelako proiektuen oposizioa egiten dutenak talde kriminalak direla. Eta hemendik aurrera zer? Beti horrela zigortuko da oposizioa?”.


Torresek honela egin du kriminalizazioaren aurrean defentsa: “Borroka herrikoia da, beraiek irudi bat



Ezkerreko argazkian lehen planoan, teiltua zulatua duen Aroztegia jauregia eta honen ondoan “maizterren etxea”. Hondoan, Lekarozko herria.

saldu nahi dute eta gure lana da herrian gertatzen dena zabaltzea, deus ezkutatu gabe eta egin dena aitortuta: horren izena ez da talde kriminal, horren izena da desobedientzia zibila, erresistentzia eta herri borroka. Horregatik, guk epaiketan absoluzioa eskatzen dugu, ze guk onartzen duguna da desobedientzia zibila egin dugula, ez besterik, eta hori ez digutenez leporatzen, absoluzioa eskatzen dugu". Elizegik jarraitu du: "Gu kartzelara bidalita ere, hemen herri bat egongo da erasoan kontra bere burua defendatzeko prest. Ezin dute kriminalizatu Baztan osoa. Tira, egin izan dute, baina zailagoa da". Prat bat dator: "Ez du inongo zentzurik zazpi pertsonari leporatzeak, ze herri batek gelditu du obra, eta hori agerian geratuko da, beraiek espexera sartuko balituzte ere oposizioak aurrera jarraituko duelako. Baina herriak obra gelditu du, eta ez proiektua; bi gauzak desberdindu behar dira". Torresek azken datu horri heldu dio: "Gezurretan ari dira, zeren haien argudio nagusia da zazpi herritarrek proiektua gelditu dugula, baina

proiektua ez dago geldituta, lortu duguna obra momentu batez gelditzea izan da. Proiektuak badu 2039 arteko baimena. Urte asko dituzte obrak hasteko nahi izanez gero, baina parean izango dute jendea hori gelditzeko. Proiektuak asko zailtzea lortzen dute herri mugimenduek. Palacio de Arozteguak ez balu eduki 20 urtean herri bat erresistentzia egiten manera diferentetan, Aroztegia jada eginda egongo zen. Ez dago eginda eta hori garaipen bat da".

 **Elkarrizketa bizian** iritsi gara gertakarien eszenara: aurrean dugu Tellari auzoa eta bertan Aroztegia jauregia. Leinu-etxe hau 1513an jada aipatua da Nafarroako Erresumako nobleziaren baitan. Aurrean ditugu lurrak ere: historikoki, jauregiak 43 hektarea lur izan ditu bere jabetzan, baina egun Aroztegia proiektuak 46 hektarea lurreko eremua hartzen du, inguruko beste lurjabeetatik eta herri lurretatik guztira 3 hektarea lur bereganatuta. Jabetza kontuetara bideratu da gure arteko elkarrizketa.

ABIAPUNTUAN NAGUSIAK ETA MAIZTERRAK

Jauregiaren jabetza aldatzen joan izan da historian zehar. Don Ignacio Odriozola Mendizabal donostiarra agertzen da jabe gisa 1998an. Elizegik azaldu duenez, "guk beti ezagutu ditugu hemen bi familia bizitzen: jauregian familia bat eta alboan duen 'maizterren etxean' beste bat. Bi familia horiek maizterrak ziren, nekazariak eta Aroztegiako lurretatik bizi ziren".


Elizegik kontatu du Aroztegiako oinordekoek 1998an aurreproiektu bat landu zutela, bertan hotel balneario bat eta agro-eskola bat egiteko asmoz: "Aurreikusia zuten lana nork egin behar zuen ere, emakumeek; zehazki monjek, lana debalde egiteko. Hori idatzita dago 1998ko aurreproiektuan". Horregatik, Aroztegian maizter bizi ziren bi familiak herrian birkokatu zituzten. Ordu-rako jauregia erortzen ari zen, eta Elizegik kontatu duenez, "ez dakit tartean zer gertatu zen, baina oinordekoek Aroztegia saldu egin zioten Jose Maria Celayeta Alcortari".

Geroztik, Aroztegian egiteko hainbat proiektu aurkeztu izan



Erdiko argazkian, jauregiaren sarrera eta eskuineko argazkian, armarrria.

dira 2001 eta 2015 artean, jarraian ikusiko dugunez.

 **Orduantxe konturatu gara** goiz-pasa joan garen bisitariok: Lekarozko herriak 25 urte daramatza Aroztegiako aferekin. Beraz, gure begien aurrean momentuz ikusten duguna erortzen ari den jauregi bat eta utzitako lursail handi bat baino ez bada ere, proiektuak dagoeneko inpaktu ikaragarria eragin du Lekarozko elkarbizitzan eta Baztan bailaran. Jauregi zaharra kontenplatu ostean, herri bidetik eutsi diogu plazarako itzulerari. Eta azaldu digute hain justu herri bideekin hasi zela Aroztegiako liskarra...

2001 HASIERA ZABARRA

Beraz, José María Celayeta Alcortak erosi zuen Aroztegia. Celayeta Elizondoko enpresaria da eta Baztanen badu antzeko proiekturik: Arizkunen ursuatarren baserria erosi eta "Señorío de Ursua" hotela ezarri zuen 2003an. Aroztegia jauregiarekin asmo bera zuen: Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak baliatuta jauregia berritzea eta hotela egitea. Baina herrian hasieratik sortu zuen aurkakotasuna, Elizegik azaldu duenez: "Herriko jendeak ez zekien Aroztegia berak erosi zuenik. Herri-tarrei ez zien proiektua aurkeztu eta Baztango Udalak ere ez zuen ezertaz informatu [garai hartan Baztango Udalean EAko Patxi Oiarzabal zegoen alkate]. Eta bat-batean, Celayeta bide publikoak ixten hasi zen, erosi zituen lurren hesiak ondoko herri bideen barruetara eramanda. Horrela hasi zen herrian iskanbila: jendea Baztango Udalera joan zen proiektuaz galdezka, legea begiratzeko hasi zen eta Baztango alkateari esaten ezin zituztela bideak itxi. Lekarozko batzarrak eta Baztango Batzar Nagusiak akordio bat lortu zuten Celayetarekin, bide batzuk itxiko zituztela baina beste batzuk zabaltzearen truke".




"LORTU DUGUNA OBRA MOMENTU BATEZ GELDITZEA IZAN DA. BAINA PROIEKTUA EZ DAGO GELDITUTA: BADU 2039 ARTEKO BAIMENA. URTE ASKO DITUZTE OBRAK HASTEKO NAHI IZANEZ GERO, BAINA PAREAN IZANGO DUTE JENDEA HORI GELDITZEKO"

ITZIAR TORRES

Aldi berean, Celayeta saiatu zen Aroztegiaren ondoko herri lurak bereganatzen, permuta edo lur truke bat proposatuta Nafarroako Gobernuari. Baztango Batzar Nagusiak oniritzia eman zion. Elizegik garai hura honela gogoratzen du: "Herria bere lurak eta bideak defendatzearen alde zegoen. Aldiz, Baztango Udalak Aroztegiako eskaera denei baietz esaten zien". Baina Nafarroako Gobernuak ez zuen permuta edo lur trukea onartu.

Celayetak proiektua egiteko Palacio de Arozteguia SM enpresa sortu zuen, helburu soziala "garapen turistikoa" zuena. Enpresa horrek 2005ean lortu zuen Nafarroako Gobernuaren baimena jauregia konpontzeko eta bertan hotela egiteko, baina ez zuen egin.

 **Gauzatu ez ziren** proiektu horiek kontatu dizkiguten bitartean, iritsi gara bueltan Lekarozko plazara. Elizegiren etxe aurreko terrazan jarri gara goxo-goxo, eguzkitan. Mahai gainean jarri du paper ofizial meta bat: badira planoak, proiektuak, sententziak, helegiteak... Horiek eskutan, bete betean sartu gara egun auzitan den proiektura.

2008 HOTELA, GOLF ZELAIA ETA 252 ETXEBIZITZA

José María Celayeta Alcortak Aroztegia jauregia eta lurak inbertsore talde bati saldu zizkion. Promotora berriak enpresaren izena mantendu zuen (Palacio de Arozteguía S.L izena du egun) baina NIF eta helburu soziala aldatu zizkion: "higiezinaren promozioa" du helburu eta sorreran kide hauek osatzen zuten, *empresaren* arabera: Abanca Generale Seguros y Reaseguros aseguru etxea, Elizondoko Arotzarena Marín bi anai, hauen Donostiako lehengusu den Urbistondo Arotzarena, Iruñeko abokatua den Zubiri Oteiza, Moreno Fernández exekutiboa (egun Amancio Ortégaren inbertsio hoteleroak aholkatzen dituen) eta De la Colina Bejar.

Promotora honek Aroztegia proiektua handitu zuen, golf zelai bat eta 252 etxebizitza gehituta. Elizegik esan duenez, "garai hartan Nafarroan kristo guztia hasi zen lurak birkalifikatzen. Espekulazio garia zen, negozio aukera ikusi zuten eta lur horiek erosi zituzten *pelotazo* urbanistikoa egiteko". Gaur egun proiektu hau da Aroztegian aurrera eramanez nahi dutena, eta promotora bera da, bere osaketa aldatu bada ere: Arotzarena Marín bi anaiek jarraitzen dute, baina ez enpresaren sorreran egon zen Urbistondo Arotzarenak; hau 2023an atera zen.

Elizegik inbertsore hauen profila azaldu du: "Elizondoko dirudun familia da Arotzarena Marín, jatorrian fruta eta barazki enpresa bat zuena Huelvan, eta bat batean higiezinaren promotore lanetan sartu zena. Anaia horietako bat iruzur fiskalagatik kondenatu zuten eta bi milioi euroko isuna ordainduta lortu zuen kartzelara ez joatea. Eta anaia hauek oso lagunak dira Manu Aierdirekin: EAJ-ren Napar Buru Batzarreko lehendakari, Nafarroako lehendakari-orde eta Ekonomia kontseilari izanarekin. Aierdi 2021ean Davalor auzian in-

putatua zuten prebarikazioagatik, diru publikotik enpresa horri 2,6 milioiko diru-laguntza emateagatik, teknikarien txostenek enpresaren kaudimena zalantzan jarri arren. Baina epaiketa ez zen burutu epai-leak epea iraungitzen utzi zuelako (gurean ez da hori gertatuko, ez!).”

Arotzarena Marín anaietako batzuek Arotzegiaren antzeko proiektu bat egin dute Fuerteventuran (Kanaria Uharteak), Torresek azaldu duenez: “Parke natural batetik 400 metrora hotela, golfa eta 236 bungaloweko proiektua abiatu zuten; kasu honetan enpresak Atalaya Dorada izena zuen. Urbanizazio prozesua hasi zuten baina dena erdizka dago egun: lurrak izorratuta, partzelazioa eginda, argiteria sartuta eta asfaltatuta... baina kiebra deklaratu eta hartzekodunen konkursoa deitu zuten. Gaur egun, proiektu horren kostu guztiak udalaren gain daude”. Elizegik jarraitu du: “Horrelako txikiago bat egin zuten Erratzun ere: Arrollaleku deitzen den urbanizazioa, erdizka geratu dena, azerak eta farolak jarrita”.

2008an promotoreek Nafarroako Gobernuari eskatu zioten Arotzergia proiektua Udalez Gaineko Eragina duen Plana (UGEP) izendatzea, baina Nafarroako Gobernuak ezezkoa



“ELIZONDOKO DIRUDUN FAMILIA DA AROTZARENA MARÍN, FRUTA ENPRESA ZUENA HUELVAN, ETA HIGIEZINEN PROMOTORE LANETAN SARTU ZENA. ANAIA HORIETAKO BAT IRUZUR FISKALAGATIK KONDENATU ZUTEN. ETA OSO LAGUNAK DIRA MANU AIERDIREKIN”

GARBIÑE ELIZEGI

erantzun zien. Aurrerago ikusiko dugu UGEP hori pieza gakoa dela Arotzergia auzian.

2009 ILEGALIZAZIOAREN GARAIA 40 HEKTAREA LURREN BIRKALIFIKAZIOA

Arotzergia proiektuan 252 etxebizitzak horiek egiteko 40 hektarea lur birkalifikatzea eskatu zuen promotoreak Baztango Udalean 2009an eta 2010ean behin betiko onarpena eman zitzaion. Ezker Abertzalea ile-

galizatuta zegoen garai hartan eta honela zegoen osatuta Baztango Udala: Nafarroa Baiko Virginia Aleman zen alkate eta zazpi zinegotzi zituzten eta UPNk beste sei zinegotzi zituen. Garai hartan, Nafarroa Bai koalizioaren parte ziren Aralar, EA, EAJ eta Batzarre alderdiak.

Laborantza lurra hirigintza lur birkalifikatzeko eskaera horrek piztu zuen Lekarozen herritarren artean kontzientzia eta garai horretan sortu zen *Arotzergia... eta gero zer?* plataforma. Elizegik hasiera haiek kontatu ditu: “Ilegalizazio garaia zen eta guk ez geneukan informaziorik. Lekarozko alkateak Arotzergia koei laguntzen zien, beraz, hark ere ez zigun deus kontatzen. Herritar bat zegoen gaiaren gainean, eta hark alarma piztu zuelako jakin genuen birkalifikazioaren berri”. Plataformak hainbat alegazio aurkeztu zituen eta horietako bat gakoa izango zen etorkizunean. Elizegik azaldu du: “2005ean Arotzergia zazpi hektareako zuhaitzia erre egin zen. Eta bide ezezagun batetik mendizain baten txostena iritsi zitzaigun, esanez sute bat egon zenez, lur hori ezin zela birkalifikatu hurrengo 30 urteetan. Izan ere, ezaguna da Galizian sute pila egon zirela birkalifikazioak bul-tzatzeko eta praktika horiek saihesteko atera zuten Espainiako Estatu mailako lege hori. Abokatuengana jo genuen eta ondoren udaletxean idatziak sartu genituen”. Torresek kontatu duenez, “garai hartan plataformak lan handia egin zuen Sustrai Erakuntzarekin eta beste hainbat eragilerekin, proiektua bide legale-tik gelditzeko”.

Plataformak gaia auzitegira eraman bazuen ere, Baztango Udalak aho batez onartu eta tramitatu zuen lurra birkalifikatzea eskatzen zuen Arotzergia proiektua. Gainera, bazen Arotzergia promotorearen eta Baztango Udalaren arteko ageriko lotura bat: abokatu bera zuten enpresak eta udalak, Blas Otazu, Gabriel



Garbiñe Elizegi hizketan, mahaian Arotzegiaren 20 urteetako dokumentuak dituela.

Urralburu Nafarroako presidente zen garaian Nafarroako hirigintza zuzendari izandakoa (1984-1988) eta 1994an epaitu zutena gobernuko kargu horretan "prebrikazioa eta faltsutzea" egin izana egotzita.

Herritarrek manifestazioak egin zituzten Aroztegia proiektuaren kontra, eta Lekarozko alkateak ez zuenez herri galdeketa egin nahi, herritarrek sinadura bilketa egin zuten presioa egiteko eta 2009an Lekaroz herrian galdeketa antolatu zuen plataformak: parte hartu zutenen %67k kontra bozkatu zuten, %26k alde eta %7k xuri.

Plataformak herritarrak informatzen eta sentsibilizatzen lan egin zuen, Torresek azaldu duenez: "Lekaroz ur hornidura arazoak dituen herria dela eta golf zelai batek ez zuela zentzurik esaten genuen. Basozain batzuk aztertzen aritu ziren proiektuak animaliei zer kalte egingo zien...". 350 biztanleko herrian 252 etxebizitza sortzeko planteamenduak ere alarmak pizten zituen. Pratek gordea du garai hartan plataformak banatu zuen esku-orria eta besteak beste, bertan azaltzen zuten 750 biztanle inguru ekarriko lituzkeela eta desoreka handia sortuko lukeela Lekaroz. Esku-orri horretan "pelotazo" izendatzen zuten proiektua, argudiatuz garai hartan laborantza lurak batez beste metro koadroko 0,9 euro balio zuela eta hirigintza lurak, aldiz, 23 euro eta beraz, birkalifikatze hutsarekin promotorak dirutza irabazten zuela. Gaur egun ere Baztango datuek zalantzan jartzen dute etxebizitza berrien premiarik dagoenik: egun, etxebizitzaren %36 dago hutsik (860 etxebizitza, horietatik 520 bigarren etxebizitza dira, asko gipuzkoarrenak). Oso bailara turistikoa da, 2.800 ohe turistikoa daude, hau da, hamar biztanleko lau ohe turistikoa.

Elizegiren ustez, eredu talka da auzia: "Baztanentzat zer eredu nahi dugun da gakoa. Haiantzat Arozte-



**"BAZTANGO UDALEKO EUSKARA
TEKNIKARIAK, PAULA CASARESEK,
AROTEGIAN ZENTRATUTAKO
AZTERLANA EGIN ZUEN, GERO
UEMAK BALIATU ZUENA.
HORRELAKO PROIEKTUEK
HIZKUNTZARENGAN DUTEN
ERAGINA AZERTU ZUEN"**

ITZIAR TORRES

gia proiektu estrategikoa da Baztan politikoki espainola izan dadin, klasismoa eta hierarkia egon daitezkeen, garapen ekonomiko jakin bat eman dadin...". Torresek jarraitu du: "Baina hala ere, oraindik Baztan da laborari aktibo gehien dituen Nafarroako mendialdeko eskualdea, beraz, esperantza ez da galdu, garaz gaude beste eredu bat mantentzeko eta indartzeko". Izan ere, Baztango populazio aktiboaren %5,8 laborari gisa dago alta emanda: 250 dira profesionalak eta 540 laborantzarekin batera beste aktibitate bat konbinatzen dutenak.

Euskararen aldeko borrokatzat ere badute Aroztegiakoa: "Baztango udaleko euskara teknikariak, Paula Casaresek, Aroztegian zentratutako azterlan bat egin zuen, gero UEMAK baliatu zuena. Bertan aztertu zuen horrelako proiektuek hizkuntzarengan duten eragina", azaldu du Torresek. Elizegik jarraitu du: "Lapurdiko kostaldea ikusi besterik ez dago hizkuntzaren mapa nola aldatzen den ohartzeko. Eta promotoreek hasieratik esan zuten Lapurdiko kostaldeko eredu zela Baztanera ekarri nahi zutena".

Elizegik espekulazioaren sukar hura ekarri du gogora: "Garai hartan txaletak egiten ari ziren toki guztietan eta jendea bere lur guztiak saltzen ari zen. Ez zen Aroztegia bakarrik, Baztanen eraldaketa ikusten ari ginen, nola saltzen ziren bordak dirutza baten truke. Hortik ere kontzientzia sortu zen, gertatzen ari zena astakeria zela eta nola zen posible baimenak ematea lurren kalifikazioa aldatzeko...". Baina gehitu du giro horretan ez zela erraza izan Aroztegiaren gaiak babes soziala jasotzea: "Garai horretan Baztanen nekazaritzatik eraikuntzara pasatu ziren gizon asko, eta esaten zuten: 'Ni nola hasiko naiz horren kontra ni eraikuntzan ari banaiz...'"

Aroztegiaren alde zeudenek lanpostuak argudiatzen zituzten, Elizegik gogoratu duenez: “Emakumeentzat lanpostuak sortu behar ditugu, hotelean emakumeek lan egingo dute”, esaten zuten. Aroztegiaren baitan zegoen etxebizitzaren proiektua gorde egiten zutela azaldu du, “hau proiektu turistikoa da” nabarmentzen zutela, eta herrian askok pentsatzen zutela “beraiena baldin bada zergatik ez dute hor nahi dutena egin behar?”.

Baztango Udalean nagusi zen Nafarroa Baik “garapena” hitza zerabilen Aroztegia justifikatzeko eta babes ofizialeko etxeak ere egingo zirela argudiatzen zuen. Elizegik gogoratu duenez, “hirigintzatik dirua sartzen zen udaletxera eta haiek esaten zuten Baztanek garapenerako diru hori behar zuela eta beraz, bir-

kalifikatu behar zela. Hau da, herrian babes sozialeko etxebizitzak edukitzeko espekulatu egin behar genuela. Orain gauza bera da energiarekin: energia berriztagarriak nahi baditugu, horiekin espekulatu behar omen dugu. Kasualitatez, fruta enpresatik hirigintzara jauzi egin zuen familiak orain energia enpresa bat dauka. Espekulazioa non, haiek han”.

Ilegalizazioaren garaia zenez, Aroztegiaren aurkako mugimenduak herri batzarrak aktibatu zituen erakunde publikoetan eragin ahal izateko eta horrek herrietako erakundeetan demokrazian sakontzeko balio izan zuen. Pratek azaldu duenez, “Baztango herrietan, herri batzarretan aukeratzen dira alkateak eta alkateak ez dira alderdian aurkezten. Beraz, hemengo egitura administratibo bereziari esker lor-

tzen genuen nolabait ilegalizazioa gainditzea, ikuspegi ezkertiarreko alkateak hautatuta. Gainera, alkate horiek badute ahotsa eta boza Baztango Batzar Nagusian eta erakunde hori da batez ere lur komunalen kudeaketaz arduratzen dena. Eta Aroztegia proiektuan 170 metro koadroko partzela bat komunala da”.

Torresek azaldu du herrietako batzarretan egon zen bilakaera: “Baztan aski tradizionalista izan da. Batzar Nagusiak eta herrietako batzarrak aski apalduak zeuden, eta ilegalizazio garaian prozesu bat eman zen, herrietako batzarren zein Batzar Nagusiaren eskumenak aktibatuz. Alkatearen funtzioa da herriko batzarrean erabakitzen dena transmititzea Batzar Nagusian. Hor-taz, aunitzetan, nahiz eta alkateak ez izan oso gure sokakoak, gerta-



EKINKLIK

Ezkerreko orrian, 2021ean Aroztegia proiektuko eraikitze lanak hasteko Tex enpresak bota zuen hariztetako bat, hondoan jauregia ikusten dela. Herritarrek euren gorputza makinaren aurrean jarrita lortu zuten astebetetera obrak geratzea. Ondoko orrian, egun haietan egin zuten kanpaldia.

tzen ahal da herriak guztiz egotea Aroztegia proiektuaren aurka eta alkateek gehiengoaren erabakia eraman behar dute Batzar Nagusira, ez haien boz pertsonala. Proiektu hauei esker, herrietako alkateen papearak sozialki garrantzia hartu du eta egun segurtatzen da batzarretako funtzionamendua egokia izatea: hau da, Batzar Nagusian zerbait bozkatu baino lehen gai horri buruzko batzarra antolatu behar dela herrian eta abar... beraz, arduragabekeria gainditu da". Elizegik balioan jarri du herrietan irabazi dena: "Kultura demokratikoan sakondu dugu eta denok ikasi dugu bidean. Ordura arte guk ere ez genuen sinesten Batzar Nagusiak zituen eskumenetan. Herri zapaldua garenez, erabakitze eta antolatze hemengo moduen zilegitasuna galdua zuten. Baztango sistema hau idatzita dago Nafarroako administrazio legean, baina ordura arte normalizatuta zegoen Batzar Nagusia adornozkoa izatea. Bere eskumenak berreskuratu dira eta jada ez da hain erraz garai hartan bezala gauzak nolnahi egitea". Demokratizazio prozesuaren baitan emakumeen parte-hartzea nabarmen hazi dela gehitu du Elizegik: "Oroitzen naiz txikitan, gure ostatuan egiten ziren Lekarozko herri batzarrak eta emakume bakarria egoten zen. Orain gizonak baino gehiago emakumeek parte hartzen dute. Herri guztietan ez da lortu aktibazio eta parte-hartze maila hau, baina justu Lekarozen bai eta herri aunitzetan ere bai".

2011 BAZTANGO UDALEAN AROZTEGIAREKIKO JARRERA ALDATZEA

2011n Baztango Udalaren osaketa aldatu zen: Bilduk alkatetza eta bost zinegotzi izatea lortu zuen, beste bost zinegotzi lortu zituen UPNk, Baztango Ezkerrak bi eta NaBai 2011k bakarria. Kontuan izan behar da EA Bilduren barruan zegoela eta aurreko legegintzaldian Nafarroa Bairekin atera zela; bestalde, Aralar NaBai 2011n zegoen. Gerora sortu ziren EhBildu Aralarrekin, eta Geroa Bai Aralar gabe.

Aroztegiarekiko jarreraren, Bildukoak aurka zeuden, UPN eta NaBai 2011 alde eta Baztango Ezkerrarekin izan zituzten eztabaidak honela azaldu ditu Elizegik: "Udala hartzeko akordioa haiekin egin genuen. Haiek esaten zuten Aroztegia proiektuko etxebizitzaren kontra zeudela baina ez proiektu turistikoaren kontra. Guk esaten genien ez zela proiektu turistiko bat, *pelotazo* urbanistiko bat zela. Haiek esaten ziguten euren nahia zela Baztanen argi geratzea beraiek ez zeudela progresorekin kontra. Kontuak horrela, gure proposamena hauxe izan zen: promotoreei eskainiko diegu nahi badute egingo dugula proiektua, baina etxebizitzarik gabe". Irtenbide hori proposatzeak kontraesanak sortu zituela azaldu du Elizegik: "Zergatik planteatu genuen hori? Ez geneukalako gehiengorik! Polemikia izan zen, noski, nik ez dut golf zelairik nahi! Eta pla-

taformakoek kanpotik esaten zuten 'guk ezin dugu hau defenditu!', eta normala! Ezin zuten defenditu eta ez zuten defenditu behar. Baina gure kezka zen: nola ateratzen gara korapilo honetatik? Gainera, bagenekien enpresak ez zuela hori onartuko. Jokaldi politiko bat izan zen: Baztango Udaletik proiektuaren modifikazio bat egin genuen, ikusteko Udalak bazuela akordiora iristeko borondatea, eta atera ginen esanez proiektu hori egiteko prest geundela. Enpresarekin bildu ginen eta ezetz esan zuten". Torresek plataforma barrutik bizi izan zuen garai hura: "Hor argi geratu zen *pelotazo* bat zela eta ez proiektu turistiko bat, eta hori plataformak baliatu zuen argudio gisa".

Bildu Baztango Udalean sartu orduko, bi aldean abokatua zen Blas Otazurekin harremanak eten zituen udalak. Elizegik kontatu du 2013 arte borroka judiziala eman zela Baztango Udalaren eta Aroztegia promotoraren artean: "Blas Otazuk jarraitu zuen promotoraren abokatu izaten eta 2013 arte zinpi-zanpa aritu ginen: beraiek jarraitu zuten hirigintzako urratsak ematen, hau da, partzelazio proiektuarekin eta horrelako gauza teknikoekin bidean aurrera egiten, eta guk udaletik bide legetatik errekursoak jartzen".



2013an auzitegiak arrazoia eman zion *Aroztegia... eta gero zer?* plataformari, erretako partzela ezin zela birkalifikatu esan zuen sententziak. Baina sententzia atera baino zertxobait lehenago promotorak Aroztegia proiektua moldatu zuen, erretako eremu horretan eraikinik aurreikusten ez zuena.

Bitartean, Baztango Udalarekin gaia korapilatu zitzaiola ikusita, promotorak 2014an Nafarroako Gobernuan eskaera sartu zuen, Udalez Gaineko Eragina duen Plana (UGEP) izendatu zezan, hau da, proiektuarekiko erabakiak tokiko erakunde publikoetan hartu beharrean, Nafarroako Gobernura pasatu zitezien. 2015ean Nafarroako Gobernuan agintean zen UPNk lehen onespina eman zion UGEP eskaerari, hauteskundeak izan baino bi egun lehenago. “Baina hori gelditzen ahal zen”, ohartarazi du saminez Elizegik: “Zeren eta hauteskundearen ostean, Nafarroan ‘aldaketaren gobernua’ jarri zen eta gobernua osatzeko akordio programatikoa bat egin zuten Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Ezkerrak, baina akordio programatikoa horretan ez zuten Aroztegia sartu, eta alderdi guztiek onartu zuten hori hala izatea”.

UGEP ONARTU ZUEN NAFARROAKO “ALDAKETAREN GOBERNUAK”

Aroztegiaren auzia “aldaketaren gobernua”ren akordio programatikotik kanpo utzi zutela ikustean, Damoklesen ezpata gainean sentitu zuten Baztanen. Torres mintzo da: “Plataformatik *kaña* handia eman genuen erranez Iruñean ‘aldaketaren gobernuari’ garrantzia handia ematen zitzaiola, baina nekazal eremua saldu zutela, aldaketaren izenean gainera! Haserre handia genuen ‘aldaketaren gobernua’rekin”. Azkenean, UGEP kolore guztietako alderdiek onartu zuten. Hala kontatu du Pratek: “UGEPari UPNk eman



“UGEP-ARI UPNK EMAN ZION HASIERAKO ONESPENA, BAINA GEROA BAIK EMAN ZION AZKENA”

ERNESTO PRAT

“EH BILDUK JARRI ZUEN KONTSEILARIAREN DEPARTAMENTUTIK GAINERA. GURETZAT OSO BORTITZA IZAN ZEN”

GARBIÑE ELIZEGI

zion hasierako onespina, baina Geroa Baik eman zion azkena”. Elizegik gehitu du: “EH Bilduk jarri zuen kontseilariaren departamentutik gainera. Guretzat oso bortitza izan zen. Gainera, akordio programatikoa sartu ez bazuten ere, posible zen UGEParen kontra egitea, nahikoa zen behin betiko onarpena ez ematea. Are gehiago, akordio programatikoa bai sartu zen puntua izan zen UGEP legea moldatu behar zela, horrelako egoerak saihesteko eta gehiago egin ez zitezien”.

Baina gerora justu alderantziz gertatu da, Elizegik azaldu duenez: “Aroztegiaren ondotik etorri dira UGEP tresna erabilia beste proiektu batzuk, Erdizkoa eta Etxabakointzekoa, adibidez. Ez hori bakarrik, UGEParen lege hau kopiatu dute Tapia Legea egiteko, beraz, ez da gelditu, gainera funtzionatzen die eta besteei bidea erakutsi diete! Euskal Herrian aurrekari larria izan da Aroztegiako UGEP”.

Pratek salatu du demokraziaren ikuspegitik urraketa larria dela UGEP: “Tresna horrek aukera ematen die bertako borondatearen gai-

netik pasatzeko. Beraiek Iruñetik erabakitzen dute baztandar guztien gainetik Baztanendako zer den ona. Eta eskumena kentzen diete bertako instituzioei”. Elizegik “hirizentris-moa” salatu du: “Munduaren ikuspegia da, ea nola laguntzen ahal dion proiektu honek hiritarrari”. Pratek jarraitu du: “Landa eremua justifikatzen dute hirien zerbitzurako eta aisialdirako, kontuan eduki gabe bertako errealitatea, izan kulturala, linguistikoa, ekologikoa...”.

Baina Aroztegiaren proiektuak ba al ditu “Udalaz Gaiandiko” interesekoa dela esateko ezaugarriak? Pratek ohartarazi du udalerrri bakarri eragiten diola proiektu honek, “eta UGEP izendatzen da udal bati baino gehiagori eragiten dionean”. Torresek gehitu du: “Interes orokorra denean egiten da UGEP eta ez da kasua, hau *pelotazo* urbanistiko bat da”. Bitxia da, 2008an jada promotora honek eskatu zuela UGEP izendapena eta garai hartan Nafarroako Gobernuko Hirigintza zerbitzuko zuzendaria zen José Antonio Marcén-ek ukatu egin zuela, aldiz, pertsona berak 2015ean kontrakoa sinatu zuen, UGEP izendapena emanaz. Gaur egun Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia da Marcén.

UGEP izendapena gutxi ez eta 2016an Nafarroako Gobernuak Foru Intereseko izendatu zuen proiektua, eta horri esker, promotorak 20 urterako jaso zuen egiteko baimena. Elizegik erantsi du: “Gainera 2019an Geroa Baike Manu Aierdik berri egin zuen 20 urteko epe hori”, beraz, promotorak 2039ra arteko epea badu proiektua gauzatzeko.



Terrazan eserita UGE-

Paz eta bere albo-kalteez hizketan dabiltzala, kafea kontrako ezterrira joan zaio kazetariari, entzun duena irentsi ezinda. Argi ibili zu ere, irakurle maite, jarraian irakurriko duzunarekin ez-tarria tratatu gabe.

PROIEKTUAREN KONTRA DAUDEN LURJABEAK PROMOTORE BIHURTUTA

UGEP izendatzeak baditu bere ondorioak proiektuaren kudeaketan: hasteko, Palacio de Arozteguía promotorari lurrak desjabetzeko eskumena ematen dio. Elizegik salatu duenez, “ikaragarria da, enpresa pribatu bati eman zaio berez erakunde publikoena den eskumen bat”. Bestetik, promotorak proiektuko lurren %80 baino gehiagoren jabetza duenez, “konpentsazio batzordea” osatzen du eta honek eramatzen du proiektuaren ardura. Eta konpentsazio batzordearen parte dira Aroztegia proiektuaren barruan dauden lurren jabe guztiak, kasu honetan Palacio de Arozteguía (43 hektarearen jabea), Baztango Udala (170 metro koadroko herri lurren jabea), Telefónica, Nafarroako Gobernua eta hamaika lurjabe. Hamai-ka lurjabe horietako batzuek ez dizkiete haien lurrak proiektuari saldu nahi, are, proiektuaren aurka daude. Baina, hala ere, “konpentsazio batzordearen” parte dira, eta batzorde horretatik exekututzen da proiektua. Hau da, haien borondatearen aurka, proiektuaren promotore bihurtu dituzte. Baina praktikan, bozak lur kopuruarekiko proportzionalak direnez, erabaki guztiak Palacio de Arozteguía enpresak hartzen ditu.

Pratek ohartarazi du “oso deserosoa” dela une honetan lurrak promotorari saldu nahi ez dizkieten herri-tarren egoera, izan ere, erabakietan parte izateaz gain, proiektuan dirua jarri behar denean ere proportzioan jarri behar dute: “Eta ez badute diru hori aportatzen, haien ondasunetik enbargatzen ahal dizkiete, hau da, etxea edo dena delako ondasuna galtzen ahal dute!”.

Gaur egun, Aroztegia proiektuaren lurrak utzita daude: ez dira obrak egiten ari baina jabeentzat ez daude erabilgarri, promotorak itxiturak kendu zituenez, berriz erabil-

tzen hasteak lan handia eskatzen dielako itxiturak egiten. Urteak pasatzen doaz eta sasiak hartzen ari dira lurrak. Torresek zehaztu duenez, “lur hauek erabiltzen dituen barrenetakoa auzian gure aurkako lekuko gisa hitz egingo duen herriko gizon bat omen da, enpresari hauen familiako kidea dena”. Lurrak xantairako erabili izan direla salatu du Elizegik: “Herriko hainbat nekazari-rik erabili izan zituzten lur horiek obrak hasi ziren arte. Baina norbait-ek proiektuaren kontrako jarrera erakusten bazuen, ukatu egiten zioten belai horiek erabiltzeko aukera. Horrelako presio moduak erabili dituzte, edo herriko gizon batzuk Espainia aldeko ehiz-barruti batera gonbidatzea ehizatzeraz...”.



“HERRI MUGIMENDUAK GAUZAK GELDITZEKO GAI GARELA ERAKUTSI ZUEN KANPALDIAK. GEROZTIK ETORRI ZIREN ARBONAKO OKUPAZIOA, KANBOKO MARIENIAKOA...”

ITZIAR TORRES

2016 HERRI GALDEKETA ETA HERRITARREN AURKAKO AUZIAK

2016ko ekainaren 5ean, proiektuari buruzko herri galdeketa egin zen Baztanen, Baztango Batzar Nagusiak antolatuta [garai hartan EH Bilduko Joseba Otondo zen Baztango Udaleko alkate]. *Aroztegia... eta gero zer?* plataformak aktiboki parte hartu zuen galdeketa aldeko sinadurak bilduz. Gure hizlari-ek azaldu dute-nez, “Baztanen Geroa Baik kanpaina itzela egin zuen herri galdeketa-ri zilegitasuna kentzeko, eta ez bozkatzeko eskatu zuen”. Geroa Bairen ar-

gudioa izan zen galdeketa ez zuela baliorik, ez zelako loteslea. Bozkatu zutenen %80k Aroztegiaren aurka eman zuten. Baztango hamar alkatek emaitza onartzea eskatu zioten Nafarroako Gobernuari. Baina 2017ko abenduaren 27an, Nafarroako Gobernua behin betiko onartu zuen Aroztegia proiektua.

Urte horietan ez zen auzitegieta-ko gatazka baretu. Pratek kontatu duenez, “presio judiziala beti oso aktibo izan dute promotoreek, oposizioaren kontra”. Elizegik berak Baztango alkate zela bi salaketari egin behar izan zion aurre: “*pelotazo* urbanistiko” hitza erabiltzeagatik 36.000 euroko kalte-ordaina eskatu zuen promotorak baina Elizegik auzia irabazi zuen. Eta “prebarikazioa” egotzi zion promotorak, plataformaren aurkako prozeduretatik erretiratu zelako udala: auzi hau etenda dago, faltsua dela frogatu ondoren. Joseba Otondo Baztango alkate zela “prebarikazioa” egitearen salaketa jarri zion promotorak, proiektuaren aurkako protesta bat baimendu zuelako: auzia bertan behera geratu zen. “Prebarikazioa” egotzi zion berriro ere Otondori promotorak, hotelaren eraikuntza-lizentzia bertan behera uzteagatik: auzi hau etenda dago, faltsua dela frogatu ondoren.

Aroztegia... eta gero zer? plataformako zazpi pertsonari salaketa penalak jarri zizkieten 2016an, prentsaurreko batean “*pelotazo* urbanistikoa” hitza erabiltzeagatik: espetxeratzea eta 50.000 euroko kalte ordainak eskatu zituzten haien kontra, baina auzia bertan behera geratu zen.

2021 OBRAK HASTEA ETA AROZTEGIKO KANPALDIA

“Bide legalean ibilbidea beteta, plataformak bere bidea itxita ikusi zuen”, azaldu du Elizegik: “Izan ere, plataforma helegiteak sartzeko eratu zen ofizialki eta jada legalki ez zegoen ezer egiterik”. Horrela zeuden gauzak 2021ean. LAB sindikatuak



Aroztegia jauregiaren ondoan dagoen ermita. Epaitegiek berretsi dute ermita ez dela promotorarena: herriarena edo udalarena den argitu behar du lehenik promotorak eta ondoren expropiatu, proiektuarekin aurrera jarraitu aurretik.

helegitea jarri zuen promotoraren aurka, esanaz obren esleipen prozesua ez zuela UGEPAk eskatzen duen moduan egin. Nafarroako Auzitegiak LAB-i arrazoia eman zion eta esleipena legez kontrakoa izan zela adierazi zuen, baina hala ere promotorak obrak hasi zituen apirilaren 8an, Tex enpresaren hondeamakinak eremuan sartuta. Promotorak argudio gisa erabili zuen sententzia horri helegitea jarria ziola eta beraz, sententzia ez zela behin betikoa.

Lehen egunetan herritarrak hondeamakinaren aurrean jarri ziren, obrak geldiarazteko, eta langileak etxera joaten zirenean herritarrak ere etxera itzultzen ziren. Baina egunak aurrera joan ahala, erabaki zuten lotan bertan gelditzea eta halaxe, apirilaren 16an, lursailetan erresistentzia-akanpada abiatu zuten. Astebeteren ondoren, Tex enpresak bere makinak lekutik atera zituen eta herritarrek kanpaldia altxatu zuten, aldi berean, maiatzaren 15ean Elizondon manifestatzeko deia eginda.

Beraz, kanpaldiak lortu zuen obra gelditzea, baina izan zen galaririk: zientoka haritz eraitsi zituen Tex enpresak, horien artean batzuk ehunka urtekoak. Bide zaharrak xehetu zituzten makinek. Baztango



**“ENPRESAK EZ ZUEN BAIMENIK
OBRAK HASTEKO ETA
HERRITARREI ESKER SAIHESTU
ZEN TXIKIZIOA HANDIAGOA
IZATEA. PROMOTORAK EZ DU
ZIGORRIK IZAN ETA BITARTEAN,
HERRITARREK, LEGEA BETEARAZI
DUTENEK, MILAKA EUROKO
ISUNAK JASO DITUZTE”**

ERNESTO PRAT

paisaiaren ezaugarri diren harlauza handiak, zelaiak hesitzeko erabiltzen direnak, bota zituzten. “Gelditu genituelako, bestela Sukiletzeko erreka izorratu behar zuten!”, gogoratu du Elizegik.

Txikizioen irudiak zabaldu egiten ziren mugikor bidez herritarren artean, eta kanpaldia horrela handitu zela kontatu du Torresek: “Irudi horiek Baztanen zegoen min bat piztu zuten. Bailara mailan mobilizazio masiboa hasi zen”. Pratek jarraitu du: “Denek lagundu nahi zuten: batzuk ez ziren ausartzen makinaren aurrean jartzen, baina laguntzeko be-

ren modua bilatzen zuten, adibidez, tortillak eginda kanpaldikoek afaltzeko, edo zaintza txandak egiten zituzten, edo herri mailako mobilizazioetan parte hartu...”. Torresek hasi orduko kanpotik jaso zuten babesa ekarri du gogora: “Pandemian kontentzio fase potente batetik heldu ginen eta enpatia handia eragin zuen kanpaldiak Euskal Herri mailan: kolektibo pila bat etorri ziren eta aldeko adierazpen mordoak jaso genituen”.

Kanpaldiko esperientziaz zera baloratu du Elizegik: “Oso garrantzitsua izan zen Baztan mailan belaunaldien artean sortu ziren harremanak eta elkarlana. Zaintzak garrantzia handia hartu zuen, COVIDaren testak ekarri genituen eta inork sintomak bazituen joan egiten zen... Batzarretan modu kolektiboan hartu ziren erabakiak eta auzolanean egin ziren gauzak”. Torresek gehitu du: “Emozionalki arrunt potentea izan zen. Lur eremua ere aunitz zaintzen zen, zikindu gabe”.

Kanpaldian uneoro 10-40 lagun artean egon ziren, baina behar zen momentu puntaletan askoz jende gehiago elkartzen zen, Pratek azaldu duenez: “Sare sozialetan norbaitek jartzen bazuen ‘makinak mugitzen ari dira eta agertu jendea faborez leku zehatz honetan’, kanpaldian zegoen jendeaz gain ordubeteko epean 60 pertsona plantatzen ziren makinaren aitzinean, herrian guardia zibilen 24 orduko kontrola zegoen arren. Ikaragarria izan zen”. Torresek momentu bat du gogoan: “Akanpadan 30 lagun inguru geunden eta abisua zabaldu zen Iruñetik Espainiako polizien furgona pila bat zetozela. Bat batean alde guztietatik jendea iritsi zen, belaietatik, sasietatik... ehun pertsona baino gehiago. Eta irudikatu behar da hau dena polizialki hartuta zegoela! Jendea arriskatzeko prest egon zen”. Pratek aitortu du: “Nik ez nuen espero jendearen erantzun hori”.

Garai hartan Prat Lekarozko alka-tea zen, eta herrian bizi izan zuten “militarizazioa” salatu du: “Herriko sarreran guardia zibilen kontrola etengabe jarria zegoen baina ez zen hori bakarrik, guardia zibilaren presentzia proiektuaren inguruko bide guztietan etengabea zen, gau eta egun herritarrek identifikatzen zituzten, leihotan zeuden herritarrek ere xaxatzen zituzten... egun horietan identifikazio pila bat egon ziren: pandemia garaia zen, ezin zen jendea elkartu, maskarillekin egon behar zen... isunak jartzeko eta oposizioaren kontra egiteko pandemia-ko argudioak erabili zituzten”.

Lortu zuten; obrak gelditzea lortu zuten herritarrek, ekintza zuzen horren bidez. Elizegik aitortu du: “Ez genuen espero obra geldituko genuenik. Tira, ez genuen espero ezta bi gau emango genituenik ere! Hortik aterako gintuztela espero genuen”. Torresek argudiatu du: “Guardia zibilek eta foruzainek ez zuten argi UGEP izendapenak non uzten duen lur horien okupazioaren gaia. Aski nahasiak zeuden administrazioetik eta indar polizialen aldetik”. Elizegik argi du: “Gu ez bagintuzten atera izan zen politikoki ez zitzaielako interesatzen. Gainera, eremua ez zen husteko erraza: 46 hektarea ziren eta kotxearekin ezin ziren sartu... gu hortik ateratzekotan moduak borbortza izan behar zuen, eta ez zuten irudi hori eman nahi, zer eta obraren baimena zalantzan zegoenean... PSN zegoen Nafarroako Gobernuan eta PSNk ez du izan interesik handiena proiektuan, interesik handiena UPN, PP eta EAJk izan dute”.

Pratek paradoxa azaldu du: “Guk defendatzen genuen enpresak ez zuela baimenik obrak hasteko. Denborak arrazoi eman zigun, akanpada bukatu eta hilabete gutxira atera zen behin betiko sententzia. Baina ordu-rako txikizioa egin zuten eta herritarrei esker saihestu zen txikizioa are handiagoa izatea; bitartean, adminis-




Otsailaren 1ean Iruñean jende oldea elkartu zen auzipetuei babesa emateko eta Aroztegia gelditzea eskatzeko.

AITOR KARASTORE / EOKU

trazio publikoak ez zuen deus egin ilegalki hasi zen obraren aurrean. Eta nik dakidala promotorak ez du inongo ondorio ekonomikorik eta zigorririk izan baimenik gabeko sarraskia egiteagatik! Bitartean, dozenaka herritarrek, legea betearazi dutenek, milaka euroko isunak jaso dituzte”.

Torresek garaipenaren aldea nabarmendu du: “Herri mugimenduak gauzak gelditzeko gai garela erakutsi zuen kanpaldiak. Geroztik etorri ziren Arbonako okupazioa, Kanboko Marieniakoa... indar olde bat ekarri zuen”. Elizegik eskarmentutik gogoeta egin du borroka esparruez: “Hori da bidea; desobedientzia eta ekintza zuzena, ez dago beste aukerarik. Lehen esaten ziguten: ‘Borroka armaturik ez bada legalak izango zarete, aurkeztu hauteskundetara!’. Aurkezten zara hauteskundetara eta ez bazara beraien nahietara jartzen, kartzela mehatxua gainean izango duzu. Hala ere, Baztango Udalaren gehiengoa lortzen duzu? Bada egingo dute UGEP eta gaintik pasatuko dira; eta Nafarroako Gobernuan gehiengoa lortzen bada, etorriko dira Madrildik, eta bestela egingo dute Europatik. Orain denok begira egon behar, ea zein izango den ordaindu beharko dugun prezioa. Eta prezio altua izan behar da, ze ondo-

ria ezin da izan posible dela herritarrek gauzak gelditzea!”. Demokraziaz ere ematen dio zer pentsa honek guztiak: “Argi ikusten da ez dela sistema demokratiko bat. Iruzurra da. Irudikatzen dute aukeratzen dugula, baina ez dugu aukeratzen. Bakar batzuen esku gaude, inpunitate osoz funtzionatzen dute eta inpunitate horretatik guztionak diren baliabideak eta dirua bereganatzen dituzte. Estrategia horretan herritar batzuk besteen kontra jartzen gaituzte eta bertako aliatuak bilatzen dituzte komunitatearen haustura sortzeko, eta horrela beraien helburuak lortzeko. Mendez mende behin eta berriz bizi dugu zapalkuntza bera, lurra- ren desjabetzaren bitartez, gure hizkuntza eta kultura desagerrarazteko prozesuan azelerazio bat emanez, natura xehetuz eta noizbait burujabe izateko aukerak galduz”.

 **Hausnarketa gordina-
ren erdian** mahaira inguratu da neskatila bat, eta bihurri galdetu du mahai gainean dauden paper mordo ofizial horiek zer diren. “Nahi dituzu irakurri? Eseri eta hasi!” xirikatu du Elizegik. Handik gutxira, ondoko herrietatik bi emakume hurbildu dira, bazkaltzeko itxarongo digutela esanez, eta (H)il-

beltza nobela beltzaren astearen azken prestaketak biribiltzeari ekin diete... Bada mugimendurik herrian. Baina, zer ekarri du Aroztegia proiektuak herriko elkarbizitzan?

JARREREN BILAKAERA

Pratek azaldu du hasierako proiektuak 2001ean “batasuna” sortu zuela, “herri guztia baitzegoen proiektuaren kontra”. Elizegik horren zergatiak arakatu ditu: “Promotoreak ez zuen herriarekin loturarik eta Baztango jauntxo bat zen”.

Baina 2009ko proiektuarekin aldatu egin zen herriko giroa, Pratek esan duenez: “Proiektu horretan jada herriko familia bat zegoen tartean eta haustura sortu zen. Proiektu hau hasierakoa baino aise makurragoa zen, baina lehen kontra zeuden batzuek jarrera aldatu zuten interes familiar eta pertsonalengatik. Herri txikietako harreman biziatuek tabu moduko bat ekarri zuten, eta erabateko haustura”. Elizegik berretsi du: “Oso gogorra eta bortitza izan da”.

Baina urtez urte eta poliki poliki jendearen jarrera aldatzen joan dela esan du Pratek: “Herri txikietan elkarbizitzari eutsi nahi izaten zaionez, kosta egiten da jendeak aurpegia ematea, eta konfrontazioa saihesten da. Baina 2021ean obra hasi zuten makinaren irudiak zabaldu

zirenean, sobera aurpegia ematen ez zuen jendeak pausoa eman zuen eta agertu egin zen plazan egin ziren mobilizazioetara, manifestazio handi hartara... haustura gainditzen joan da eta gaur egun herriko batzarretan ahobatez onartzen dira Aroztegiaren inguruko aferak”. Elizegik kontrapuntua jarri du: “Baina bada go herriko sektore bat jada ez dena batzarretara etortzen. Haustura hor dago”. Pratek erantzun dio: “Baina tabua gainditzen joan da”. Torresek bi ikuspegiak lotu ditu: “Gaur egunean Lekaroz da orokorki proiektuaren aurka dagoen herri bat, nahiz eta badagoen aldeko jendea”.

Alderdi politikoen baitan ere izan da jarreretan aldaketarik 20 urteko bide honetan. Elizegik kontatu duenez, “Ezker abertzalearen ilegalizazio garaian, Baztango Udalean Nafarroa Bairen barruan zeuden EA, Aralar, Baztango Ezker... Hasiera batean haien jarrera aldekoa zen, eta horietako batzuk sinetsita zeuden bailararentzako gauza ona zela. Gero, alderdi horiek aldatu dute proiektu honi buruzko beraien ikuspegia. Batetik, egin den lanketarekin eta bestetik, krisiaren ostean ikusi dutelako ‘hau ez zen bidea’”. Koalizioetan izan ziren bilakaerek ere bere eragina izan zutela iradoki du Pratek.

EGUN PROIEKTUA ZERTAN DA?

Elizegik azaldu duenez, “oraingoz, bi auzigatik daude obrak geldituta, baina promotorearentzat ez dira gainditu ezinezko oztopoak”. Lehen auzia azaldua dugu jada erreportaje honetan, hau da, eraikuntza lanen esleipena ez zen legea beteta egin eta beraz, obra hasi ahal izateko esleipena berri egin beharko luke promotoreak.

Bada bigarren auzi bat, Lekarozko ermitarena: Aroztegia jauregiaren ondoan ermita bat dago eta promotoreak proiektuaren barruan sartu zuen, ermita berea zela esanda. Baina Lekarozko herriak berea dela dio, udalak honen defentsan epaitegiatar jo zuen eta epaiak berretsi zuen ermita ez dela enpresarena. Aldiz, ez dago garbi jabetza herriarena edo udalarena den. Ondorioz, promotoreak lehenik argitu egin beharko luke ermitaren jabetza norena den eta ondoren, UGEPak ematen dion eskumenaren bidez, ermita desjabetuta gauzatu ahalko luke proiektua.

Elizegik berretsi duenez, “beraz, obrak gelditu badira ere, proiektua garatzeko ez dute gaindiezina den oztoporik”. Eta 2039 arteko epea badute.



Aroztegiaren aferak jarraituko du... ●





%100 kotoi organikoz landutako kamiseta hau erosita, ekarpen ekonomikoa egingo diozu Amillubi proiektuari, baita ARGIA kazetaritza proiektu independenteari ere. Informazio + www.amillubi.eus

Prezioa **22€**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.



azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

